

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Urtero bezala martxoaren 8an kalera irten dugu emakumeon eskubideen defentsan. 1908 New Yorken greban zeuden 100 emakume baino gehiago erre zituzten bere enpresan. Urte batzuk geroago emakume hauen omenez emakumeen nazioarteko egun izendatu zuten martxoaren 8a.

Mugimendu feministak azken urteotan egindako lanari esker asko izan dira lortu ditugun eskubideak, baina bide luzea dugu oraindik egiteko.

Gaur egun berdintasun egoera batean bizi garela dioten arren, berdintasunaren ideia faltsua saldu nahi digute. Asko dira gaur egun oraindik ere benetako berdintasun egoera batean ez garela bizi adierazten diguten datuak: lan merkatuko egoera, sektore feminizatueta prekaritatea, politikagintzan presentzia sinbolikoa, eremu publikoan parte hartze mugatua, egunero jasan behar dugun mota ezberdineko indarkeria sexista, erailketak, e.a.

Orain gainera krisiaren aitzakipean onartzen ari diren dekretu, murrizketa eta erreformek urteetan arlo guztietan lotutako eskubideen zuzeneko galera ekartzeko arriskua dakarte, eta inoiz baino garrantzia handiagoa hartzen du emakumeok gure artean elkartu eta gure eskubideen alde borrokatzeak.

Urte asko igaro dira New Yorkeko sarraskitik, baina lan baldintza duinen aldeko borroka gaur egun oraindik ere bizirik dago, eta horren eredu garbiena San Jose Egoitzako langileek martxan duten borroka da. Gure elkartasun eta babesaren adierazi nahi dizkiegu Emakumeen Mahaitik, egoera horretatik urrundu daitezten.

Eta besterik gabe eskerririk asko etorri zareten guztioi, eta gogoratu emakumeon eskubideen aldeko eguna egunero dela.